

## TXOSTENA/MEMORIA

### 04. DEPARTAMENTUA: OGASUN ETA FINANTZA

#### DEPARTAMENTO 04: HACIENDA Y FINANZAS

#### 10 Programa: Ogasun Zuzendaritza Nagusia

#### Programa 10: Dirección General de Hacienda

#### Izena: Laguntzen aholkularitza - EB

#### Denominación: Asesoramiento ayudas UE

#### Proiektuaren gastu osoa: 86.587,00 euro

#### Importe total gasto proyecto: 86.587,00 euros

### EUROPAR BATASUNAREN AURREAN EGIN BEHARREKO JARDUKETETAN ZERGA ALORREKO BERARIAZKO AHOHKULARITZA JURIDIKOA EMATEKO ZERBITZUEN KONTRATAZIOA FINANTZATZEA HELBURU DUEN URTEANITZEKO GASTU KONPRO-MISOAREN MEMORIA

Azken urteotan hainbat auzi sortu dira Europar Batasuneko erakundeen aurrean zerga arloko foru araudiaren inguruan, zuzenbide erkideari dagokionez.

Batzar Nagusien jarduketak eragotzi gabe, Foru Aldundiak ardura hartu behar du bai Foru Araubide osoa eta bai Gipuzkoako Lurralde Historikoari dagozkion eskumenak zaindu eta babestu daitezen. Hori bai, komeni da babes hori bake giroan egitea, bereziki, inplikaturik dauden gainerako herri administrazioekiko harremanetan. Helburu horrekin, bere unean erabaki zen ospe handiko abokatu talde bat kontratatzea Europar Batasunaren aurrean egin beharreko jarduketetan berariazko aholkularitza juridikoa eman zezaten zerga alorrean.

Zehazki, haien zeregina da aholku ematea Europar Batasunaren aurrean egin beharreko jarduketek buruz, Batasunak –Foru Aldundiak bere garaian onartutako opor fiskalekin lotuta– estatu laguntzengatik irekitako espedienteetan.

Horrela bada, bidezko tramitazioa egin ondoren, uztailearen 17ko 546/2009 Foru Aginduaren bidez esleituta geratu zen

### MEMORIA DEL COMPROMISO PLURIANUAL DE GASTO DESTINADO A FINANCIAR EL CONTRATO PARA LA PRESTACIÓN DE LOS SERVICIOS DE ASESORAMIENTO JURÍDICO ESPECÍFICO EN MATERIA TRIBUTARIA Y FISCAL, PARA ACTUACIONES ANTE LA UNIÓN EUROPEA

En los últimos años se han producido varios litigios ante instancias de la Unión Europea en materia de normativa fiscal foral en relación con el derecho comunitario.

Sin perjuicio de las actuaciones de las Juntas Generales, la Diputación Foral debe velar por la salvaguarda de la integridad del Régimen Foral y las competencias correspondientes al Territorio Histórico de Gipuzkoa. No obstante, resulta conveniente que dicha salvaguarda se realice de forma pacífica, especialmente en las relaciones con el resto de las Administraciones Públicas implicadas. Así, se consideró oportuno contratar el asesoramiento jurídico específico en materia tributaria y fiscal para actuaciones ante la Unión Europea con un equipo de abogados/as de reconocido prestigio.

En concreto, se trataba de asesorar sobre las actuaciones a realizar ante la Unión Europea en relación al expediente que esta lleva por ayudas de estado en relación a las vacaciones fiscales aprobadas en su día por la Diputación Foral.

De conformidad con lo expuesto, tras la tramitación oportuna, por Orden Foral 546/2009, de 17 de julio, se adjudicó la

Europar Batasunaren aurreko jarduketetan zerga eta fiskalitate alorreko berariazko aholkularitza juridikoa emateko zerbitzuen kontratazioa. Kontratua 81.200,00 €-tan esleitu zen, BEZa barne, bi zatitan ordaintzeko: lehen zatia kontratuaren aurreneko seihilekoan eta bigarrena kontratuaren bigarren seihilekoan. Gainera, prozesu zehatz hori garrantzi handikoa zenez Foru Aldundiarentzat, abuztuaren 30eko 725/2010 Foru Aginduak urtebetez luzatu zuen kontratua, 83.302,10 €-ko aurrekontuarekin (BEZa barne) eta bi zatitan ere ordaintzeko, hau da, sei hilabeteko bi epetan.

Europako Batzordeak irekita dauka oraindik espedientea, eta aholkularitza beharrezkoa dugu gaur egun ere. Beraz, 2011. urtean beste kontratu bat izenpetuko da. Luzatutako kontratuaren indarraldia noiz amaitzen den ikusita, kontratu berria 2011. eta 2012. urteetarako formalizatuko da, eta bi kopuru hauek ordainduko dira: 43.287,00 € 2011. urtean eta 43.300,00 € 2012an.

AURREKONTUKO ZUZKIDURA

2011 .....	43.287,00
2012 .....	43.300,00

contratación de los servicios de asesoramiento jurídico específico en materia tributaria y fiscal, para actuaciones ante la Unión Europea por un importe de 81.200,00.- €, IVA incluido, a abonar en dos partes iguales, una en el primer semestre y otra en el segundo semestre del contrato y, teniendo en cuenta la importancia de este proceso concreto para la Diputación Foral, mediante la Orden Foral 725/2010, de 30 de agosto, se acordó prorrogar el contrato por un año, por un importe de 83.302,10.- €, IVA incluido, manteniéndose la forma de abono en dos plazos semestrales.

El expediente se mantiene abierto por parte de la Comisión Europea por lo que sigue manteniéndose la necesidad del asesoramiento y, así, durante el ejercicio 2011 se formalizará un nuevo contrato. Vista la fecha de vencimiento de la prórroga en vigor, el nuevo contrato afectará a los ejercicios 2011 y 2012 procediendo abonar en 43.287,00.- € en el ejercicio 2011 y 43.300,00.- € en el ejercicio 2012.

DOTACIÓN PRESUPUESTARIA

2011 .....	43.287,00
2012 .....	43.300,00